



# SAN ISIDRO GUNA BASERRITARREN OMENEZ

Albiztur, Alkiza, Altzo, Amasa, Asteasu, Berastegi eta Zizurkilen ekitaldiak antolatu dituzte biharko 4

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Osteguna  
2009-05-14

VILURTEA 1.701.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Bizikleta martxa egin zuten eskolakoek; Lehen Hezkuntzakoek 8 bat kilometro egin zituzten gurasoekin batera Nafarroako mugaraino eta Haur Hezkuntzakoek, aldiz, plazan bertan egin zuten buelta bertan egindako zirkuitu batean. ESTI EZEIZA



Jesus Perurena, ELAkoa. A. IMAZ

## Sarriopapel lantegian gaur jakingo dute langileen erabakia

**LEITZA** Jesus Perurenak (ELA) deialdiari «erantzuna eman behar» zaiola dio 7

## Aierbenea edo Kultur Etxea egiteko mailegua onartu dute

**AMEZKETA** Azken bilkuran onartu zuten erabakia 6

## Eskolaren Astean murgilduta, «eskola handienen pare»

**LIZARTZA** Astelehenean ekin zioten Juan XXIII Herri eskolan; gaur Alkizako eta Adunako ikasleen bisita jasoko dute eta bihar egun pasa egingo dute Aramara eta Ekain Berrira 6

## Xabi San Sebastian ariko da bihar Bonberenean

**TOLOSA** Etzi Yakuzi eta Loan taldeak izango dira taula gainean; 22:30ean hasiko dira kontzertuak 2

## Udala ELAekin bildu da Santiago egoitzari buruz hitz egiteko

**VILLABONA** «Negoziatetarik hasteko eskumenik ez» duela azaldu zuen Udalak 4

## Ikasleek konpromisoak hartu dituzte «herri hobe baten alde» 3

**DISEINU GRAFIKO eta sormenean oinarritutako heziketa**

Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zirkulak



**TITULAZIO OFIZIALAK**

Nazioarteko lehiaketak  
praktikak atzerrian

IRUDIZTAPENA . KARTELGINTZA . PUBLIZITATEA .  
ARGAZKIGINTZA . BERRUKIPEN DIGITALA . SERIGRAFIA  
WEB DISEINUA . MULTIMEDIA . MAKETAGINTZA

www.ceinpro.es  
**INFORMAZIOA 943 310 873**

Herriz Padesalekua 96 • 20006 Donostia • Gipuzkoa • Faxa 943 310 876

# Xabi San Sebastian, Yakuzi eta Loan ariko dira bihar eta etzi Bonberenean

**Tolosa** » Xabi San Sebastian donostiarrak 'Ospela' izeneko bere azken lana aurkeztuko du bihar, 22:30ean hasita.

## ERREDAKZIOA

Asteburu honetan, ohikoa den moduan, musika eskaintza zabalzagozatzeko aukera izango da Bonbereneako taula gaiean. Bihar Xabi San Sebastian izango da, eta etzi, berriz, Yakuzi eta Loan. Kontzertuak 22:30ean hasiko dira.

Xabier San Sebastian donostiarrak txikitatik izan du musika inguruan; Donostian hasi zuen bere hezkuntza musikala, berehala Madrilerako joango zelarik hango *Taller de Musicos*-en jazz eta musika moderno ikasketak hiru urte burutzeko. Etxean berriz ere, Izotz taldean Euskal Herriko haika plazetan ibili zen kantari. Geroago Albokauskal folk taldearekin (Joxan Goikoetxea, Alan Griffin) mundu zabaleko antzoki eta auditorioak ezagutu zituen (Eskozia, Grezia, Italia, EEBB, Ejipto...). Kepa junkera, Martha Sebestyen (Hungariako Ahots tradizionala) eta Alasdair Fraser-ekin ere (bibolin jotzaile eskoziarra) egin du lan. ETB1entzat abestu du *Hitzetik Hortzera* eta *Euskal Kanturik Onena* saioetan.



'Ospela' izeneko bigarren bakarkako lana aurkeztuko du Xabi San Sebastianek. HITZA

Duela hiru urte abiatu zuen bere bakarkako bidea *Orai* diskoarekin. Orainetik egindako iraganeko musikaren irakurketa bezala definitu zuen. Orain, berriz, *Ospela* izenekoarekin dator, bere bakarkako bigarrena. Lan honekin, gure herriko kantagintzaren transmisioan beste katebegi sendo bat osatu du, etorkizunetz beteriko musika sortuz, eta musikaz beteriko etorkizuna bermatzen lagunduz.

## Etzi, Yakuzi eta Loan

Bihar izango da Xabi San Sebastian Bonberenean, eta etzi, berriz, Yakuzi eta Loan ariko dira.

Yakuzi taldea Durangaldean jaio zen 1998. urtean. Rock Post Rock musika egiten dute, intentsitateekin jotuz. Gustavo (programaketak, baxua eta ahotsa), Anartz (bateria), Aitor (kitarra) eta Gorka (kitarra) osatzen dute taldea. Hirugarren diskoa aurkeztu-

ko dute etzi, *Hot Balneario* izeneko.

Loan taldea, berriz, Bilbotik dator. Mikel (gitarra), Eritz (bateria) eta Mikelek (baxua eta ahotsa) osatzen dute taldea. *Hautsa* izeneko demoa, eta *Kobazuloan saikerak* delako diskoa kaleratu dituzte, eta azken lana *Hontzirian*, Bonberenean grabatu dute, Karlos Osinagarekin. Disko horretako abestiak izango dira entzungai.

# Poxpolo eta Mokoloren 'Mekatxis Mariatxis' bihar ikusgai, frontoian

**Amezketak** » 17:30ean hasiko da emanaldia; pasadizo xelebreak eta egoera barregarriak izango dira ikuskizuneari nagusi.

## ERREDAKZIOA

Poxpolo eta Mokolo pailazoen *Mekatxis Mariatxis* ikuskizuna izango da bihar, 17:30ean, plazako frontoian.

Pasadizo xelebreak eta egoera barregarriak izango dira. Pailazoei bi lagun bere bisita jasoko dute: Mexikotik datorren Mariatxi jatorria, eta Zikin Mari maltzurra. Magia, kolorea, lilura, sentimenduak, sentsazioak, abesti berriak eta barre eta algarak uztartuko dira. Iker Galarza, Joseba Usabiaga, Iñaki Odriozola, Dani Gibelalde, Juan Urretabizkaia, Iñigo Alustiza, Iñigo Aseginolaza eta Migel Casi dira parte hartuko dutenak.



Poxpolo eta Mokolo emanaldi batean. I. GARCIA

# Zahartzaro Duina plataformak eskaerak luzatu dizkio Udalari

**Tolosa** » Herenegun egin zuten bilera Joxe Agustin Arrieta zinegotziarekin, Alondiga plazako gerontologikoari buruz.

## ERREDAKZIOA

Zahartzaro Duinaren Aldeko Plataformako kideek Joxe Agustin Arrieta Udal zinegotziarekin bilera izan zuten herenegun, Alondiga plazako gerontologiko berriaren inguruan informazioa trukatu eta hainbat proposamen eta eskaera luzatzeko baliatu zutelarik.

Plataformako azaldu bezala «gure aldetik, erresidentzi berri honek eskainiko duen zerbitzua ahalik eta kalitate onenekoak izan dadin, ezinbestekoak diren gutxienezkoak izan behar ditu, eta horretarako gure proposamenak egin eta erabakitzen parte hartzeko nahia azaldu diogu».

Batetik, zentroak egoiliarrei eskainiko dien plaza kopurua eztabaidatzea nahi dute, «kontzertatuak izango diren plazen zenbatekoa, esaterako». Eskainiko dituen zerbitzuen inguruan, berriz, «Arnastu edota Sendian bezalako programak garrantzitsuak dira», plataformakoek ustetan. Bestalde, Iturrija jabilatu elkartekoek gerontologiko zahararen eskaintzen zituzten ekintzen etorkizunaz ere hitz egitea garrantzitsua da euren ustetan, eta baita, kafetegiarren inguruan, hau da, «egoitzan bertan biziko diren egoiliarrek erabiltzeko jarriko zaizkien erreztasunez».

Egoitza berriaren pareko plaza-aren inguruan, egoiliarrentzat jarriko dituzten azpiegiturak kezkatzen dituzte plataformako kideak.

Azkenik, egoitzaren kudeaketari dagokionez, «herritarren eta erabiltzaileen parte-hartzea ahalbideratu luketen organoak sortzea eskatzen dute, besteak beste».

## Laburrak

### Gorrieriari buruzko hitzaldia, gaur, Amaratzen

**TOLOSA** » Gorrieriari buruzko hitzaldia izango da gaur, 19:00etatik 20:00etara, Amaratz auzoan, Bete Gazteak elkartearen egoitzan. Verónica Egiguren mefikuak emango du, eta gorrieriaren prebentziarako metodoak, eman behar diren pausoak eta aholkuak azalduko ditu. Gainera, hitzaldira joaten direnei, ondorengo materiala emango zaie: informazioa botika ototoxikoei buruz, entzumenerako gida bat eta entzumen arazoak prebentziko tresnak.

### Krisiaren gaia jorratuko dute bihar, Otsabin

**TOLOSA** » San Blas piko Gazte Asanbladak antolatutako Maiatza Gorria egitararen baitan, krisiaren gaia jorratuko dute bihar, 19:00etan, Otsabi elkartean. Kasun honetan, EREak izango dituzte eztabaidagai. Espediente hautaz kaltetuak izan diren hiru langile izango dira elkartean euren esperientziaren berri emateko. Langile hauek Gorostidi SA (Tolosa), Insalusa SA (Lizartza) eta Smurfit Munksjo Paper SA (Berastegi) enpresatxoak dira, hain zuzen ere.

## T Telefonoak Larrialdia. ((112))

### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarralde.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbolak:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

**DYA:** 943 672536

**Gurutzte Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 943 693930

### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxi:** 943 670420

**Taxi (Leitza):** 608 873016

### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udalaitzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474



Zizurkilien haurrak udaletxera joan ziren proposamenak ezagutaraztera. Ikaztegiatan (eskuinean) 49 haurrek hartu zuten parte proiektuan. HITZA

## «Herri hobeago bat eraikitzeko» ikasleen proposamenak entzun dituzte

**Agenda 21** » Anoetan, Ikaztegiatan eta Zizurkilien eskolako Agenda 21eko batzarrak egin dituzte, ondorio askotara iritsiz.

### ERREDAKZIOA

Hilabete honetan zehar Eskolako Agenda 21eko udal batzarrak egin dituzte hainbat herritan. Ikasleekin bildu ondoren, txostenak presatu dituzte emaitzekin. Zizurkilien, Anoetan eta Ikaztegiatan egin dituzte azken bilera hauek. Guztietan ekitate gabezia landu dute, baina ondorio ezberdinak atera dituzte; bide batez, herri guztientzat baliagarriak izan daitezkeenak.

Herri hauetan eskolako kudeaketaren hobekuntza, kurrikulumaren azterketa eta komunitatearen partaidetza lantzen da eskolako Agenda 21ean eta kasu honetan, azken puntuan oinarritu dira eskolatar joateko orduan.

### Zizurkilien «herriko txiroei laguntzeko konpromisoa»

Pedro Mari Otaño, San Millan eta Jesusen Bihotzeko ikastolako umeak Zizurkilgo udaletxean izan

ziren. Ateratako ondorioak, proposamenak eta konpromisoen berri eman zieten Zizurkilgo udal ordezkariak.

Herriaren diagnosa egin ondoren, ondorioen artean hauek dira haurrek atera zituztenak: «Jolatu daitekeela dirua gastatu gabe, beste haurrek jolasteko aukera gutxiago dituztela, gizonak errazago duela migrazioa emakumeak baino, etorkin gehienak triste etortzen direla familia euren herrian uzten dutelako, etxerik ez duen jendea badagoela herrian, eskaleak ere badaudela eta bakarrik bizi diren jubilatu asko dagoela».

Ondorio horietara iritsita, proposamenak ere bazituzten, esaterako, «herriko txiroei laguntzeko lan txikiak ematea, euskara ikasteko klaseak doan ematea, etxebizitza eta lana aurkitzen laguntzea, edota lan bila etorri beharrean beren herrian enpresa eta lanpostuak sortzeko laguntza ematea».

Zizurkilgo ikasleek konpromisoak hartu zituzten honen aurrean. Besteak beste, «daukaguna banatuko dugu, zerbait apurtzen denean udaltzainari abisatuko diogu, baserriarrei zuzenean erosiko diegu eta parkeak zainduko ditu-

gu, gainera diru gutxiago gastatuko dugu jolasteko».

Marian Lazkano Zizurkilgo alkateak eskaera hauek guztiak «ahal den neurrian» egingo zituztela adierazi zuen.

### Anoetan «sexismoaren aurka»

Anoetan atzo bildu ziren eskolako Agenda 21 proiektuko udal batzarrak egiteko. Guztira 303 ikasle hartu dute proiektuan. Hainbat haur joan ziren udaletxera, proposamenak eta ondorioak aurkezteko. Hauek izan ziren ondorioetako batzuk: «Munduko haur guztiak ez garela berdin bizi, guk zorte handia dugula, gauza asko ia soberan ditugula, emakumea oraindik ere iragarkietan adibidez, gutxietsita dagoela», etabar.

«Egoera hobetzeko» proposamenen artean «gu baino okerrago bizi diren herrialdeei laguntzeko kanpainak bultzatzea» agertu zen. Atzerriarrei laguntzearen aldekoak azaldu ziren, eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde ere agertu ziren; bukatzeko, etorkinei euskara ikasteko aukera ematea azpimarratu zuten.

Hiru izan ziren hartutako konpromisoak: urtero Sahara bezala-

ko lurraldeei laguntza ematen jarraitu, «mutil eta neska dena elkarrekin eta normaltasunean egin eta ikasgelara datozen etorkinei lagundu, bakarrik ez utziz, eta euskaraz zuzenduz, adibidez».

### Ikaztegiatan, «ikasle berriei harrera on bat egiteko prest»

Krisi ekonomikoarekin zerikusi handia duen gaia da ekitate gabeziarena. Bilera honetan ere ikasleek esandakoetan oinarrituz eskolara iristen diren ikasle berriei harrera on bat egitea izan da hartu duten konpromiso nagusia, «ber-

tan eroso senti daitezen». Horregatik, herrira bizitzera doan edozein pertsonari bertan integratzeko baliabideak ematea eskatu zuten proposamen gisa.

Hauek dira atera zituzten ondorioak: diru gutxiagorekin ere ondo pasa daitekeela, diruaren erabilera zaindu egin behar dela eta «gu baino diru gutxiago daukatenak asko direla». Bukatzeko, integrazioari bultzada emateko beharra ikusi zuten, «denok edozein lekutan bizitzeko eskubidea dugulako, eta besteak hobeto sentiaraztea gure eskuetan dagoelako, gure eginbeharren artean dago».

Datorren astelehenean (hilak 18), Bidegoianen izango da eskolako Agenda 21 proiektuko udal batzarra. Orduan ere, ikasleek egingo dituzte proposamenak eta ondorioak aterako dituzte.



Anoetako Udalekoek adi entzun zituzten ikasleen konpromisoak. HITZA

## Alegiako haur eskolan izena emateko aukera

### ERREDAKZIOA

Alegiak datorren ikasturterako haur eskolaren zerbitzua izango du. Bada, bertara 0 eta 2 urte bitarteko haurrak joan daitezke.

Haur eskolan izena emateko epea bihar bertan bukatuko da. Horretarako, udaletxera jo behar

da eta han dagoen agiria bete. 09:00etatik 14:00etara bitartean egin daiteke izen-ematea. Agiriarekin batera, haur eskolaren funtzionamenduari buruz hitz egiten duen diptiko osatu bat ere eskura daiteke, gurasoen interesekoa izango dena.

arantzazu

bila dabilzan pertsonentzat - santutegia, kultura eta natura

ezagutu Arantzazu gaur  
uste duzuna baino gehiago da

www.arantzazu.org

# Udala eta ezker abertzalea ELArenkin bildu dira Santiago egoitzari buruz hitz egiteko

**Villabona** » Udalak dio langileen soldata ez dela bere eskumena eta ELAk udal langileekin ekiparazioa eskatzen du.

## ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak eta ezker abertzaleak bilera izan berri dute ELAko ordezkariekin Santiago egoitzako egoeraren inguruan. Udalak langileen ordezkari esan zieten «beraien aldarrikapenaren zilegatasuna oso nabarmena zela», baina ez duela «eskumena soldata horien ekiparazioa planteatzeko».

Udalak Aldundiarekin hitzarmena duela azaldu zuen eta horren arabera bere eginkizunak eraikina uztea eta Santiago egoitzaren zerbitzua zein enpresari esleituko dioten erabakitzea dela. Horrela Udalak «negoziatetarik hasteko eskumenik ez duela» azal-

du zion ELAri eta prest zegoela «Udal bezalaguntzeko behar denaren aurrean langileen aldarrikapen horiek lortzen», esaterako «Arrasateko Udala egiten ari den bezala».

Bere aldetik, ELAk berretsi du langileek Udalarekin ekiparazioa nahi dutela, «egoitza udal zerbitzua delako». «Zerbitzuaren pribatizazioa ez dugu zergatik guk eta gure lan baldintzek ordaindu behar», gaineratu du. «Nahiz eta hiru hilabete eraman lanuzteak egiten, alkatea den Maixel Arrieta ez du negoziatu nahi», azaldu du ELAk eta gaineratu: «Zerbitzua enpresa pribatu bati esleitu diotenez, ez omen da beraien ardura».

Sindikatuaren iritziz, «garbi dago Santiagu udal egoitza bat dela eta Udalak berak esleitu dio enpresa pribatu bati bere kudeaketa». Enpresari Udalak «baldintza ple gutan ezarri dio zenbat ordu eta langileen soldata eta lan baldintzak», azaltzen dute ELAtik eta

gaineratu: «Udala bera da egoitzaren titularrak».

Villabonako ezker abertzaleak bilera azaldu zuenez, «azpikontatzen ez da ezker abertzalearen modelo idealea. Aurreko Udalak egindako operazioa izan zen». Ezker abertzaleak dioenez, «garbi dugu herri partaidetzan oinarritutako zahar egoitza bat nahi dugula, billabonatarrentzat lan egingo duen egoitza eta ez Gipuzkoako sarean dagoena». Gaur gaurkoz legeak «ez du ematen aukerarik», dio, «hitzarmen bat dagoelako Aldundiarekin eta bertako kudeaketa Diputazioarekin bat egin behar duelako».

Ezker abertzaleari «kontraesana» iruditzen zaio sindikatuak Aldundiarekin Gipuzkoako mailan hitzarmena negoziatzen aritzea eta ELAk Udalarekin negoziatu nahi izatea. Bestalde, ezker abertzaleak batzarrera deitu du gaurko, Gurean 20:00etan, herritarrei egoitzaren egoeraren berri emateko.

# San Isidro ospatuko dute hainbat herritan

## ERREDAKZIOA

San Isidro Eguna, baserriarren eguna, ospatuko dute eskualdeko hainbat herritan bihar. Albiztur, Alkiza, Altzo, Amasa, Asteasu, Berastegi eta Zizurkil antolatuko dituzte ekitaldietan. Guztietan meza eta bazkaria edo afaria egingo dituzte.

## » BIHARKO EGITARAUAK

### ALKIZA

- **16:30.** Haurren jolasak.
- **17:00.** Trontza, arpana, txondorra eta Ernioko Kableari buruzkoa.
- **19:00.** Frontenis Txapelketako hirugarren eta laugarren postua erabakitzeko partida.
- **20:00.** Meza parrokiaren.
- **21:00.** San Isidroko afaria Udalak antolatuta Ostatu jatetxean. Txorimaloen erakusketak plazan.
- **22:00.** Tasio ikazkina filma.

### ALTZO

- **21:00.** Meza Santa Maria elizan.
- **21:30.** Afaria Segoretxen.

### AMASA

- **10:30.** Meza nagusia.
- **12:30.** Ahari jokoak plazan. Jon Lopategi eta Anjel Larrañaga bertsolariak ariko dira.
- **14:00.** Bazkaria Iturri-Goxo jatetxean. Bertsolariez gain, Zabale eta Larrañaga trikitilariak.
- **20:30.** Afaria Uxo-Toki elkarteran barrikotearekin. Trikitilariak eta bertsolariak ariko dira.

### ASTEASU

- **11:00.** Meza.

Egun honetako ohiko beste ekitaldiak herri kirolekin lotutakoak izaten dira. Asteasun idi proba antolatuko dute, Amasan aurtengoan ahari jokoak izango da ikusgai eta Zizurkil herri-jasotzaileak eta aizkolariak ariko dira. Ez dira falta bertsolariak eta trikitilariak San Isidro Eguna alaitzeko.

- **13:00.** Erakustaldia probalekuan asteasuaren artean. Olarreko-Goi-koa baserriko idi pareta eta Joxe Barriolaren idi pareta ariko dira lehian 1.200 kilo harria eta gainkargarekin.
- **14:00.** Bazkaria Sarasola sagardotegian. Amets Arzallus eta Sus-trai Colina bertsolariak eta trikitilariak izango dira bertan.

### BERASTEGI

- **13:15.** Prozesioa udaletxetik San Martin elizara.
- **13:30.** Meza.
- **14:15.** Bazkaria Arregi jatetxean. Bazkaldu eta gero, gaztetxoaren bertso saioa eta Iñaki Barriola, Maialen Etxeberria eta Izaro Sainzarren soinu eta kantu emanaldia entzun ahal izango da.

### ZIZURKIL

- **11:00.** Meza.
- **12:00.** Aizkolari eta harri-jasotzaileak.
- **14:00.** Bazkaria Plaza Etxeberri jatetxean trikitikari eta bertsolariekin.
- **18:30.** Herriko gazteen arteko pilota partidak.

# Infantilek Kopa etxera ekarri dute

## ERREDAKZIOA

Villabona futbol elkarterko infantilek Kopako finala irabazi dute, Lezoko Alleru taldeari 1-2 irabazi eta gero. Partida orokorrean hartuta garaipena ez zen zaila izan. Halere, lezotarrek izan zuten batez ere baloia partidan zehar. Hori bai, aukerak gutxiago izan zuten billabonatarrek baino.

Lezotarrak hasi ziren nagusitzen eta billabonatarrek defentsan aritu ziren batez ere. Fisikoki lan asko egiten ari ziren Villabonakoak eta horregatik entrenatzaileek posizio aldaketa batzuk egin eta aholku batzuk eman ondoren, hobeto ari ziren.

Atsedendira hutsean iritsi ziren eta bigarren zatia hasi eta gutxira Eneko Alkortak sekulako



Argazkian, Kopa lortu zuten jokalariek eta entrenatzaileak. HITZA

gola sartu zuen areaz kanpotik. 0-1eko laster bihurtu zen 0-2koa, Asier Aranaldek penalti bat eskuadratik sartu eta gero. Partida amaitzeko bost minutu falta zirela sartu

zuten gola Alleroek. Zazpi minutuz luzatu bazen ere norgehiagoka, ez zieten beste golik sartu Villabonakoei eta Kopa etxera ekarri zuten.

## Laburrak

### Jubilatuak ibildu neurtua eta patinaje ikastaroa, gaur

**IRURA** » Kultur Astearen baitan, gaur, 16:45ean, jubilatuen ibildu neurtua aterako da plazatik. Herriko kaleetan zehar ibiliko dira eta ondoren sari-banaketa eta luntxa izango dute Zaharren Biltokian. 17:30ean frontoian patinaje ikastaroa haur eta gazteentzat.

### Gaur haurrentzako tailerra, bihar kontzertua frontoian

**ANOETA** » Gaztetxearen 10. urterenaren ekitaldien baitan, gaur haurrentzako tailerrak egingo dituzte. 17:30ean elkartuko dira Gaztetxearen tailerrarekin hasteko. Bihar, kontzertua izango da, 23:00etan frontoian, Kop eta Izate taldeekin.



## saridunak

- Koro Mañeruri (Alegia)
- Oihana Agirre (Tolosa)

Beasaingo **GARAGARDO AZOKA**n afaltzeko (Maiatzak 14, 15, 16 eta 17)

sarrerak bertan harpidedun txartela erakutsita

HITZAK 2 harpidedunentzat **bina sarrera** ditu

Maiatzak 16 • Larunbata  
16:30ean  
Tolosako Beotibarren



sarrerak eskuratzeko ostiraleko 12:00ak arte:

**943-65 56 95** irabazleen izenak, maiatzak 16ko egunkarian



sarrerak

Apezetxea - Cabrerizo II

**OLAZABAL // BEROIZ**  
(2. mailako Buruz buruko finalerdia)

Capellan - Lasa III  
Mikel Goñi - Eulate

## Ekitaldiz beteriko Txapin Festa antolatu dute etzirako, bigarrenez

**Tolosa** » 10:30ean ekingo diote jaiari poteoarekin; perkusio ikastaroak, jolasek, bazkariak, musikak,... emango diote jarraipena.

### ERREDAKZIOA

Guztia prest dute Txapin Festarako. Etzi izango da Tolosan, herriko gazte talde batek antolatuta. Bigarren urtez egingo da jaia «iazko arrakasta ikusita» eta «gazte sentitzen den orori» zuzenduta dago, batik bat «gaztetasunaren bigarren eta hirugarren fasean» daudenei.

Aspertzeko astirik, behintzat, ez da izango, ekitaldiz beteriko egitarau osatua aurkeztu baitute Txapin Festako antolatzaileek.

10:30ean, poteoarekin ekingo diote Txapin Festari gazteek. Lokal eta lonjetan barrena ariko dira, 12:00ak arte. Orduntxe hasiko da Mulanbo perkusio taldearen eskuatik ikastaroa. Ordu bete berandago, 13:00ak aldera, kalejira egingo dute Alde Zaharretik.

14:30ean, Abastosera abiatuko dira, bertan izango baita gazte bazkaria.

### Bazkarirako txartelak oraindik ere salgai 12 euroren truke

Bazkari berezia izango da, izan ere, Akuilurekin elkarlanean, gazte baseritarren produktuez prestatutakoa izango da; Oargi elkartearen berotuko dute guztia. Txartelak salgai dituzte Orbela, Raku, Denak, Bikutz eta Meskalen, 12 euroren truke.

Bazkariaren ondoren, 16:30ean, Xibarekin herri jolasak egingo dituzte (eguraldi ona egingo balu Plaza Berrian, bestela, Zerkausian).

17:00etan Gazteak artez blai ekimena hasiko da. GKO Galeriakoe-kin elkarlanean antolatu dute estreinako ekitaldi hau. Bertan, herriko gazteek artelan bat egingo dute.

19:30etik aurrera, berriz, kontzertuak izango dira Abastosen. Un-sain anaiak, Kantaflor eta Lobo Electrico + Dj Aizpun ariko dira bertan.

## 'Irakurri, Gozatu eta Oparitu' abian da Galtzaundiren eskutik

**Tolosa** » Uztailaren 25era arte liburu bat maileguan hartzen duenak %25eko beharpena izango du Elkar liburudendan.

### ERREDAKZIOA

Galtzaundi Euskara Taldeak *Irakurri, Gozatu eta Oparitu Tolosan!* egitasmoa abiarazi zuen pasa den hilean. Galtzaundik Tolosako liburutegiaren eta Tolosako Elkar liburudendarekin elkarlanean gauzatu du proiektua. Funtzionamendua uztailaren 25era egongo da martxan eta Tolosako edozein udal liburutegitan euskarazko edozein liburu maileguan hartu eta irakurtzen dutenezat zuzendu dute. Testua testua testua testua testua testua.

Hain zuzen, liburua itzultzean, liburuazainak emandako fitxa bete behar da, liburuari buruz iritzia emanez. Adin tarte bakoitzeko fitxa bana egongo da, eta txikienean kasuan heldu batek beteko dio formularioa. Fitxa betetakoan, liburuazainak opari-txeke bat emango dio irakurleari. Honekin, %25eko beharpena egingo diote Alde Za-

harreko Aroztegieta kaleko Elkar liburudendan euskarazko edozein liburu erosterakoan.

### Ekimenaren helburuak

Irakurzaletasuna bultzatzearekin batera, xede gehiago ere ukitzen ditu *Irakurri, Gozatu eta Oparitu* egitasmoak; batetik, euskararen erabilera gozagarria bultzatu nahi du, eta kulturak eman dezakeen plazera aldarrikatu.

Bestalde, «euskaltzaleak liburutegi publikoan erabiltzaile aktibo bihurtu» nahi ditu egitasmoak. Halaber, aurrera eramango dutenen elkarlana ere jada baba lortutako helburu bat. Eta azkenik, *Irakurri Gozatu eta Oparitu* programaren bidez, euskarazko liburuen ekoizpena eta salmenta ere sustatu nahi dituzte.

### Liburu gomendagatuen zerrenda osatu du Galtzaundik

Topaguneak euskarazko 100 liburu gomendatzeko eskumena hartu du. Uxue Alberdi idazleak osatu du 90 liburu gomendagarrien zerrenda. Galtzaundi Euskara Taldeak, bere aldetik, beste hamar liburu gomendagarri gehitu dizkio zerrenda horri.



## Pirata txiki ugari pailazoei begira

**LEITZA** » Txaloak lehenik, gero zurrumurruak eta azkenean oihuak. Horrela egin zieten harrera Leitzaan bildutako haurrek Pirritxi, Porrotxi eta Marimototsi. Baztuz pailazoz margoturik gerturatu zirela ere aipatu

behar da. Denen artean kiroldegia bete egin zuten atzokoan, ia sarrera denak saldu baitziren. Hiru euskal pailazoez eta euren lagunek *Piratak* ikuskizuna eskaini zuten Leitza txiki eta handien gozameneko. A.IJAZ

**Dastatu Euskal Herriko produktuen zaporea, berriaren udaberriko eskaintzarekin**

**Haragi sorta**  
Sorta bereziki 1 kilo eta 1/2 kilo erabilera hauetan erabiltzeko da: haragi berria, sarrak, berrak, gogoratu eta berrak.  
5 kiloko sorta **58 €**

**Alloko zainzuriak**  
Lata bakoitzan 6 kilo 8 zainzuri dituzte eta 300 gramo produktua da. Dastatu berriak erabiltzeko da eta berriena kontzertatua da.  
4 latako sorta **54 €**

**Juantxo hegaltza**  
Bereizita prestatutako hegaltza. Hegoak oso erabiltzeko da. Hainbat erabileretarako erabiltzeko da. Hainbat erabileretarako erabiltzeko da.  
6 latako sorta **49 €**

**Solagüen upeltziko ardo zuria**  
Montebuena, 2008

**Noiz eta nola egin eskaria?**  
Apirilaren 23tik maiatzaren 17ra aukera izango duzu.  
1. Telefonoa: 943-37 43 43  
2. Berriz: haragietza@berria.info

**Alfar La Maja**  
OLIKA OLIO BIRJINA EJTRA  
KAZARINA BARATATIA  
6 botelako kutxa **36 €**

## Eskolaren Astea burutzen ari dira Juan XXIII Herri Eskolakoak



Eskolako haurrek Bizikleta Martxa egin zuten asteartean. E. EZEIZA



Puntu Txapelketako irabazleak: Irati Zabala eta bere osaba Manolo Zabala. HITZA



Eskolaren Asteko lehen egunean eskulan tailerra izan zuten lizartzarrek. HITZA

**Lizartza** » Gaur Alkizako eta Adunako ikasleen bisita izango dute eta bihar egun pasa egingo dute Araman eta Ekain Berrin.

REBEKA CALVO

Pasa den astelehenerik ari dira ospatzen Eskolaren Astea Lizartzako Juan XXIII Herri Eskolako haur, guraso zein irakasleek. Hogeigarren edizioa da aurtengoa eta edizio gehienak bititu izan dituen Ixiar Balerdi zuzendariak esanda-koaren arabera, «hasierako urteetako asmoa, gu herri eskola txikia izanda, guraso zein herriari, orokorrean, gurea eskola handien parean jartzea zen. Gure lan egiteko era nolakoa den erakutsi nahi genuen, horrela herritarrek gure aldeko apustua egitera bultzatze-ko».

Lehen urte haietan ekitaldi «positiboa» zela konturatu ziren eta horregatik erabaki zuten aurrera egitea. «Lehen astean zehar hitzaldiak eta horrelakoak ere antolatzen genituen, baina orain horiek urtean zehar egiten ditugunez Eskolaren Astean bestelako ekitaldiak antolatzen ditugu».

Eskola Astea bihar ostirala bukatuko da eta gaur, gainera, urteroko «bisita» izango dute, izan ere urtero beste herri batzuetako haurrek gerturaten dira Lizartzara jolastera eta aurtengoan Alkiza eta Adunakoak dira gonbidatuak. Goizean batera jolastuko dira lehenik eta gero emanaldia eskainiko diete lizartzarrek. Gaur arratsaldean, 19:00etan Kultur Gunean Jon Maiaren *Bidaia Intimoak* filma ere eskainiko dute. Bihar ostirala, aldi, irteera izango dute; Haur Hezkuntzakoak Aramara joango dira eta Lehen Hezkuntzakoak, aldi, Ekain Berrira.

### Astelehenerik ospakizunetan

Aipatu bezala astelehenean hasi ziren ekitaldi desberdinekin. «Gutxi gorabehera urteroko egitaraua osatu genuen, saio arrakastatsuenak errepikatu ditugularik: bizikleta martxa, irakasle, ikasle zein gurasoek ematen dituzten jakiekin egindako afari-merienda, Puntu Txapelketa... Puntu Txapelketa oso polita izaten da, haur batek eta familiarren batek osatutako bikoteek hartzen dutelako parte eta jende asko gerturaten delako frontoira ikustera, giro oso polita izaten da», dio Balerdik.

Berastegin

**Zelai taberna  
ALOKATZEN DA**

Deitu arratsaldez  
606 742 408

## Kultur Etxea egiteko mailegua onartu dute

**Amezketza** » 360.000 euroko mailegua hitzartu du Udalak Kutzarekin; Aierbenea eraikinak 1.200.000 balio du.

ERREDAKZIOA

Apirila bukaeran Amezketako Udalean egindako ohiko bilkuran Aierbenea edo Kultur Etxea egiteko mailegua onartu zuten. Onarpena aldeko bost botoei eta bi abstentzioei esker gauzatu zen.

Guztira 360.000 euroko dirukopurua kontratatu du Udalak Kutzarekin Kultur Etxe berria egin ahal izteko, izan ere Udalak Aierbenea edo Juan Lopezenea eraikuntza erosi behar du eta eraikinak 1.200.000 euro balio du. Foru Aldundiari ere 480.000 euroko diru laguntza eskatuko dio Amezketako Udalak Kultur Etxerako. Abstenitu zirenek argitu zuten, diru aldetik garbitasunik

rikusten ez dutelako hartu zuten erabakia. Jesus Ifurritia alkateak, berri, Foru Aldundiaren 480.000 euroko jasotzeko lehendabizi exekuzio proiektua eta hitzarmena sinatu behar dutela argitu zien.

Banketxeari eskatutako maileguaren helburua 2009. urteko aurrekontuetan adierazitako inbertsioak zati batean finantzatzea da, Udalak esan duenez, horrela eraikina erosi ahal izateko.

### %10 lehenengo

Esan bezala 1.200.000 eurotan erosi du Udalak Aierbenea, %10 kontratu pribatua egitekotan orainduko dutelarik eta gainontzekoa eskritura publikoak sinatzerakoan. Salerosketaren eskriturak sortuko dituen gastu eta zerga guztiak Amezketako Udalak ordainduko ditu eta alkatea izango da akordio honen ondorioz sortuko diren dokumentu pribatu zein publiko guztiak sinatuko dituen.

## Oporretan Euskaraz-en izena emateko epea zabaldu dute

**Ibarra** » Euskarazko udalekuak uztaila osoan zehar izango dira, astelehenerik ostiralera eta 10:00etatik 13:00etara.

ERREDAKZIOA

Ibarako Uzturpe Ikastolak jakinarazi duenez, Oporretan Euskaraz 09 udaleku irekietan parte hartzeko izen-ematea zabaldu dute jada eta hilaren 22an amaituko da. Oporretan Euskaraz urtero uztailan zehar antolatzen dituzten euskarazko udalekuak dira, non jolas eta irteerak antolatzen dituzten. Aurten udalekuak uztailaren 1etik 30era izango dira eta 4 eta 12 urte bitarteko umeez har dezakete parte. Ekitaldiak astelehenerik os-

tiralera izango dira 10:00etatik 13:00etara. Seme-alaba baten matrikulak 60 euro balio du, birenak 90 eta hirurenak, aldi, 120.

### 70 ume

Uzturpek haur kopurua mugatua izango dela jakinarazi du, 70 umek bakarrik eman ahal izango dute izena, eta ibartarrek izango dute lehentasuna. Era berean, izena emandako haur kopurua 70tik pasako balitz izen emate hurrenkera errespetatuko dutela argitu dute. «Behin betiko zerrenda osatzen dugunean, izena emateko informazio guztia eskainiko zaie zerrenda barruan daudenei», gaineratu dute.

Aurre matrikula egiteko ikastolara bertara jo daiteke, idazkari-tzan informazioa eskatuz.

## Laburrak

**Idoia Sanchez ipuin kontalaria izango da gaur**

**IBARRA** » Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta Idoia Sanchez ipuin kontalaria tolosarra izango da gaur, Ibarra eta Berrobiko liburutegietan. Lehen herrian 17:00etan izango da saioa eta Berrobin, aldi, 18:00etan.

**Bertso Eskola Eguna ospatuko dute larunbatean**

**LIZARTZA** » Bertso Eskola Eguna antolatuko dute larunbat honetarako, hilak 16, Lizartzan. Kultur Gunean hasiko da egitaraua 18:30ean *Galtzagorriek To Inaxito* saioarekin hiru euroren truke eta ondoren bertso afaria ere izango da.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Leitzako Sarriopapel-en gaur jakingo dute grebaren harira langileen erabakia

ASIER IMAZ

Leitzaldeko enpresarik garrantzitsuenan, Sarriopapelen, 450 langile inguruk egiten dute lan. Bertako Enpresa Batzordeak Greba Orokorrekin bat egin zuen apirilaren 22an. Baina maiatzaren 21ean enpresa gelditu edo ez langileen batzarrak erabakitzen du.

Enpresa Batzordeak eta sail sindikalek, LABek eta ELAk, atzo plazaratu zizkieten langileei grebarekin bat egiteko euren arrazoiak. Horretarako hiru batzar egin zituzten, txandaren arabera. Langileen erdiak 12:00ak inguruan bozkatu zuten, 15:00etan falta zirenen erdiak eta 23:00etan gaueko txandakoek. Emaitzak beraz gaur zintzilikatuko dituzte tauletan.

## Barrura begira

Jesus Perurena Enpresa Batzordeko kidea eta ELAren ordezkarria da. Bere ustez greba deialdiak Sarriopapeleko hainbat langile nahi-



Jesus Perurena, ELAren delegatua eta Enpresa Batzordeko kidea. ASIER IMAZ

ko hotz harrapatu baldin baditu ere, etorkizunari begira aurrera atera beharreko erronka da: «Sarriopapelen greba deialdiak egoera nahiko onean harrapatu gaitu. Langile kopurua jaitsi da, aurreko urteetan 15 edo 20 bat langile etortzen ziren ETT bidez eta hori falta

da, 20 bat gutxiago gara, baina ez da ERErik planteatu eta lantaldea osotasunean dago. Salmentak nahiko ongi doaz, hori zenbat paper tona ateratzen diren ikusita kalkulatzen da pixka bat: lehen egunero 30 kamioi irtetzen ziren, orain 20 inguruan ibiliko dira. Sin-

dikalgintzan gaudenok zerbaiten beharra ikusten genuen, baina hemen pixka bat ustekabe bezala etorri da. Baina kontuan hartu behar da oraindik lan hitzarmenaren inguruko negoziazioerik ez dela egon hemen, datorren urtean berri behar da, eta agian erantzun beharra izango dugu orduan. Deialdi honi erantzun gogor bat ematen baldin badiogu, behar bada eragina edukiko du datorren urteko negoziazioei begira. Interesak barruan eta kanpoan daude. Kontrataziorako baldintzak edo pentsioen murrizketan hitz egiten hasten baldin badira, etorkizunari begira horrek eragina edukiko du jubilatzera doan jendearen eta etorriko den jende berriaren».

## Krisiaren inguruan

Perurenaren ustez, ELAren ikuspegitik, krisia duela 15 urtetik honako politika ekonomiko eta sozialaren ondorioa da: «ELAk den-

bora honetan lau kanpaina jarri ditu martxan, azkenean aberastasuna banatzeko aldarrikatzen genuen. Baina aurreko kanpaineekin ere administrazioari edo gobernuari politika neoliberalaren egiten ari zela esan diogu. Azken kanpaina honetan ginela krisiarekin aurkitu gara. 15 urte horietan aberastasuna, lanpostuak... denontzat zeudela zirudien. Sindikalismo mailan beti argi ikusi dugu hori ez zela horrela: han eta hemengo langileen egoera, soldatak... ikusita. Ameriketako estatu batuar kontsumismoa ere asko sartu da eta gure ustez Europa gehiago begiratu beharko litzateke. Kontsumitu bai baina dena zorra, dena hipoteka, kreditua... dena gero ordaintzeko kontua. Hemendik 30 urtetara irabaziko duzuna ia gastatzen ari zara. Hori ez da gizarte bat aberatsa izatea. Gizarte bat aberatsa izatekotan jende xehearren ekonomia maila begiratu behar da. Guk gizarte erakatuago bat nahi dugu: aberatsen eta txiroen artean ez dadila horrelako alderdi egon. Krisi honen aurrean ez baldin badugu erreakzionatzen, lehen zegoena ere ekertzeko arriskua ikusten dugu».

# Euskal Herria Sozialista grebarekin bat

## Greba Orokorra »

Langileei «aktiboki parte hartzeko» eta «politika iraultzaile bat» egiteko eskatu diete.

A. IMAZ

Euskal Herria Sozialistako kideek maiatzaren 21eko grebarekin bat egin eta langileak «greba orokorrean aktiboki parte hartzera eta politika iraultzaile baten alde borroka egitera» deitu dituzte.

## EAJ, CCOO, enpresarioak...

EH Sozialistako kideen esanetan «langileen aurkako erasoak hain besterik ez dira egin». Hauen arduradun enpresariak, EAJ eta Eusko Jaurilaritza berria egiten dituzte: «Euskal enpresariak eta hauek ordezkatzeko dituen alderdiak, EAJk, beren herria horren-



Euskal Herria Sozialistako kideak Tolosako Kultur Etxean herenegun. A. IMAZ

beste 'maite' dutenek, ez daukate zalantzarik langileen aurka neurri gogorak inposatzeko. Eta Eusko Jaurilaritza berria, burgesia espainiarra ordezkatzeko duen alderdiarekin akordiora heldu den Patxi Lopezek zuzenduta, krisiaren arazoak konpontzeko berari botoa

eman zioten langile asko ere trazionatuz, kapitalista espainiarren eta euskal herritarren interesak defendatzen jarraituko du, Ibarretxeren Gobernuaren pausoak jarraituz».

Krisiaren arazoak ezkutatu egin dizkigutela aipatu zuten al-

dizkari sozialistako kideek eta hori kapitalismoa salbatzeko egin dutela argi dute, «baina sufrizten ari garen krisia kapitalismoaren funtzionamenduari ondo iruzena zuzena da».

Hau guztiagatik, «langile guztiak, prekarioak, finkoak, gazteak, emakumeak edo etorkinak izan, elkartuta egin behar dugu, borrokatu eta kalera irten. Uste dugu UGT eta CCOOeko agintariek akats larria egiten dutela Greba Orokor hau ez babesterakoan. Ziur gaude sindikatu hauetako delegatu eta afiliatu asko maiatzaren 21ean kalera ateratzearen alde daudela beste sindikatu baterekin batera. Langileen banaketa interesatzen zaien bakarrean enpresariak eta sindikalista erreformistak dira, baina langileei, interesatzen zaien langile klasearen batasuna da mota guztiak eta banaketan gainetik».

# Berastegin Guardia Zibilaren kontrola gasoleo gorriaren bila

A. IMAZ

Berastegi sarreran Guardia Zibilak kontrola jarri zuen atzo. «Landa eremuetan» kanpaina egiten ari omen direlako, «autoetan Gasoleo B edo gasoleo gorriaren erabilera zigortzeko».

Horretarako autoaren erregai depositutik gasolea ateratzen zuten bere kolorea ikusteko; kolore gorria baita bi gasoleoen arteko desberdintasunetako bat. Euren esanetan, gasoleo gorria lehen sektorean erabiltzen da; baina autotarako balio duenez eta prezio merkeagoa duenez, ibilgailuetarako erabiltzen duenik ere ba omen dago. Hori legez kanpokoa dela ere aipatu zuten.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendariak:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordeak:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzaileak:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Kultur asteak

■ **Berrobi.** 17:00etan Idoia Sanchez ipuin kontalaria Galtzaundiren eskutik Liburutegian. eta 19:00etan *Mundu-zaintzaileak* hitzaldia Ander Izagirreraren eskutik Eskolako soinketa gelan.  
■ **Irura.** 16:45ean jubilatuen ibilaldi neurtua herriko kaleetan zehar, ondoren, sari-banaketa eta luntxa Zaharren Biltokian, 17:30ean frontoian patinaje ikastaroa haur eta gazteentzat.

### Deialdiak

■ **Baliarrain.** II. Frontenis Txapelketa ekainaren 6an hasiko da, neskek binaka eta mutilak banan-bana. Izen-ematea, Tolosako Aralar Kirolak eta Beasaingo Urrutia Kirolak. Partiduak ekainak 6-7 eta 13-14ean jokatu dira.  
■ **Tolosa.** Juan Garmendiaren lan osoen 10. alearen aurkezpena, udal batzar aretoan 19:30ean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbida, 2. 943 654610.  
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

# Elkartearen historiatic barrena


**Tolosa** » Veleta Aiz-Orratz elkarteak herenegun bete zituen 75 urte eta horren harira erakusketa dago ikusgai Kultur Etxean.

### ERREDAKZIOA

Egunotan Kultur Etxeko beheko aretora sartzen denak pentsa lezake Inauteriak gainean ditugula, baina egutegiari erreparatuta badakigu ez dela horrela. Zer egiten dute, orduan, hainbeste mozorrok bertan? Veleta Aiz-Orratz elkartearen 75. urteurrenaren harira elkarteak kideek antolatu duten erakusketa bat da. Bertan, azken 25 urteetan, Inauterietan erabilitako jantziak daude ikusgai, baita aspaldiko argazki eta dokumentuak ere.

### Igandean, elkartearen festa

Urteurrenaren ospakizunekin jarraituz, igande honetarako elkartearen festa antolatu dute. Goizean hasita ekitaldi ugari egingo dituzte elkarteak eta bazkariarekin amaituko dute. Maiatzaren 31n ere estropada jaialdia antolatu dute Tolosan, desafio, lehiaketa, bazkari eta guzti.



Kultur Etxeko beheko aretoan jarri dute Aiz-Orratzekoek erakusketa, 75. urteurrenaren harira. I.T.



Azken 25 urteetan Inauterietan erabilitako mozorroak, argazki zaharrak eta dokumentuak ikus daitezke erakusketan. I.T.

## A Agurrak



### Zorionak!

**Larraitz eta Karlos!** Ongi etorri Izadi!! Muxu handi bat. Osaba eta izeba.



### Urte askoan!

**Amoñi!** Leire, Ainara, Mikel eta Iratiren partetik. Besarkada bero bat Iñigoren partetik.



### Urte askoan!

**Haizea Saez.** Gaur 8 urte. Mila kilo zorion eta muxu goxo-goxo bat Uxuen partetik.



TOLOSAKO  
INMAKULADA  
IKASTETXEA



Kondeko aldapa 5B Tolosa  
www.inmakuladatolosa.com  
943673629

## HEZIKETA ZIKLOAK

Goi maila

Erdi maila

- Gizarte Integrazioa
- Haur Hezkuntza
- Osasun Dokumentazioa
- Diagnosi Irudia

ATE IREKIAK  
MAIATZAK 14  
GAUR

- Erizaintza laguntzailea
- Farmazia teknikaria

ZATOZ GU EZAGUTZERA